

Lan osasuna generoaren ikuspuntutik

Langile emakumezkoentzat ezarri ziren arau babesleetatik langile guztientzako (emakumezko zein gizonezko) baliogarriak diren arau berdintzaileetara joan gara, kontuan harturik gizon-emakumeen osasunari kalte egin ahal dizkioten arriskuak ber-berak direla bientzat, bai-eta arrisku horien eraginak era berean ukitzen dituela gizonezkoak zein emakumezkoak ere. Arau babesle haiek berrikusi behar baditugu ere, askotan oztopo izan baitziren emakumeek lanpostua eskuratu ahal izateko orduan, arrisku berriak eta gaixotze-prozesuan gizonen eta emakumeen artean dauden desberdintasun biologiko, fisiologiko eta sozialak zehazki ikertzean, beharrezkoa suertatu zaigu lan osasunari buruzko ikuspuntu berri bat gauzatzea.

Emakumeei zuzendutako prebentzioan ugaltze-gaitasunarekin loturik dagoen faktore biologikoa ez ezik, gorputz-desberdintasunak, gizarteratze-desberdintasunak, jokatu behar diren paperen desberdintasunak eta, emakume izateagatik, lanari gehitzen zaizkioten betebeharrak desberdinak ere kontuan hartu behar dira.

Hori horrela izanik, **emakumeei zuzendutako lan arriskuen prebentzioak generoaren ikuspuntua barneratu behar du, guri bereziki dagozkigun arazoez ahalik eta era orokorrean aritzeko**, kontuan harturik ez bakarrik lan egoera, baita lanetik kanpokoa ere (lanegun bikoitza...), eta, era berean, osasun fisiko, psikiko eta sozialean agertzen diren eraginak.

Generoa analisi-kategoria bat da, berari esker ikusarazi ahal ditugu gizonen eta emakumeen artean dauden harreman desberdinak, sexuaren arabera ere du eta paradigma kulturalen gainean eraikiak. Giza-erakuntza horrek generoen arteko botere-hierakia zehatz bat ezarri du; horrela, gizonezkoekin lotzen diren ezaugarriak eta ekintza-motak gehiago balioesten dira, gizaratean gehiago onartzen, emakumezkoekin lotzen direnak baino, azken horienak garrantzi gutxiagokotzat hartzen direlarik. Antolaketa sistema horren oinarria lanaren sexu-banaketa dago, gizon-emakumeen paper aldaezinak gogor atxikiz.

Europako Batasunean langile guztien %45a emakumezko da, Estatuak kopurua %37koa da. Horietatik %80ak Zerbitzuetan lan egiten du, Osasun eta Hezkuntza arloetan bereziki. Gogoratu emakumeentzat lan horiek ezin ohikoagoak izan direla bizitza pribatuan.

Irakaskuntzan prebentzio-lana zailagoa izan daiteke, handiak baitira lanpostuen arteko desberdintasunak, eta korapilotsua sistemaren antolaketa: irakasleak eta ez-irakasleak (Hezkuntza Bereziko Laguntzaileak, bulegariak, garbitzaileak...), irakasmaila guztiak (Haur Hezkuntzatik Unibertsitatearaino), lan araudia eta Administrazioaren araudia, sare publikoa eta sare pribatua.

Desberdintasunak handiak izan arren, lan baldintzetatik zein beste giza-faktore batzuetatik datorren gaitzeari esker aipatu beharra dago. Lanpostu hauek guztiek dituzten betebeharrak fisiko eta psikikoak desberdinak badira ere, lanpostu berauen baldintzek hainbat arazo sortarazi dute, hala nola, **estresa, hezur-giharretako eritasunak, infekzio-eritasunak, bihotz-eritasunak eta disfoniak** bereziki.

Emakumezkoekin zuzen-zuzen loturik dauden beste osasun arazoek **ugaltze-osasuna** ukitzen dute, hala nola, abortuen gehiketa eta garaiz aurreko erditzeak.

Estresak eragin handia du langile guztiengan, eta bereziki emakumeengan, estresaren gehiketa azaltzeko ondoko faktore hauek izan behar ditugu kontuan: eguneratzearen eta berziklaiaren behar iraunkorra (lanpostua garatu ahal izateko), plan-gintzarik eza, antolaketa arazoak, norabiderik eza, lanpostuaren egonkortasunik eza, Erreforma ezartzeko erabili diren baliabideak, gizaratearen giroa... Faktore horiei gizonen eta emakumeen egoera desberdinek ekarri ohi dituztenak gaineratu behar dizkiegu, hala

Minez erditzearena gaindituta badago, ez dugu onartuko minez lan egitea. Gizonek eta emakumek gizaratean duten paper ezerdinek, ihardunaldi bikoitza, irudi ona emateko derrigortasunak, laneko diskriminazioak edo jazarpen sexualak, badute eragina emakumeen osasunarengan

Gaiak

nola, lanegun bikoitza, irudiari buruzko ideiak eta aurreiritziak, lan bazterketa edo sexu-erasoa.

Etxeko lanetan arduren banaketaren bidean aurre-
rapausoak egin baditugu ere, etxeko lanak emaku-
mearen lepora doaz oraindik nagusiki. Lanegun
bikoitz horrek ordu kopuru handiagoa ekartzeaz
gainera, lanaren eskakizunen eta etxekoen beha-
rren arteko banaketa emozionala sortarazten du,
erru bikoitzak ager daitezkeelarik; horrela, gaixotu
edo gaixotasunak kroniko bihurtu edo istripuak iza-
teko joerak areagotzen dira.

Hona hemen emakumeen lan osasunean eragina
duten beste faktore batzuk: "Kristalezko sabaia",
hau da, emakumeari lan bizitzan maila jakin batetik
gora igarotzea galerazten dion oztopo ikustezin
bezain pasaezina, lapostuan igotzeko zailtasuna,
esan nahi da, ardura handiagoa duten, eta beraz
denbora eta arreta gehiago eskatzen dituzten, lan-
postuetara iristeko zailtasuna.

Gizartearen ezaugarriekin loturik dagoen beste fak-
tore bat da emakumeei, emakumezko izateagatik,
egiten zaien eskaera gehigarria: irudia zaindu
beharra dauka, langile ona eta trebea dela eraku-
tsi behar du behin eta berriro guztien aurrean,
gizonezkoek horrelako erakuspenik oso gutxitan
egin behar duten bitartean.

Antsietatea eta depresioak ugariagoak dira emaku-
meengan gizonengan baino. Ustezko ahuldade
horrek zerikusi zuzena du
bere gain hartu behar
dituen paperekin, senitarte-
aren egoerarekin eta lana-
rekin. Emakumeen buru osa-
suna ezin azter dezakegu
haien kultura, ekonomia eta
giza-inguru osoa bazter-
tzen bada.

Bestaldetik, patologia ikus-
tezina aipatu beharra dago,
hau da hilekoan estresak,
kronikoak zein biziak, aza-
lerazten dituen arazoek
multzoa. Horren ondorioz
anemiak, burdin urritasu-
nak, nekea, haserrea eta
buruko minak ager daitez-
ke, horiek guztiek lan-osa-
sun azterketetan eta lehen
mailakoetan sartu beharre-
ko analisiak.

**Oso
garrantzitsua da
emakumeok
Prebentziorako
Delegatu bezala
parte hartzea.
Gure partaidetza
zuzenak
ikusaraziko ditu
guri dagozkigun
arazoak eta
aterabideen
bilaketan
lagunduko gaitu**

Zenbait ekimen arrisku horiei aurre egiteko

Gutziz beharrezkoa da:

Gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdin-
tasun benetakoa ahalbideratzen duten neurriak
bul-tzatzea giza-esparru guztietan, lantokian
zein lantokitik kanpo (lanegun bikoitza, etxe-
bizitzaren eta lan-bizitzaren arteko elkar aditze
orekatua, denboraren erabilera, prestakuntzara
heltzeko aukerak, etxeari eta senitarteari buruz-
ko arduren banaketa...).

Prestakuntza lanorduetan antolatzea, bestela,
lanorduetatik kanpo egiten bada, emakumeak
egin behar duen ahalegina bikoitzen baita
(etxekoek dituzten ordutegiak aldatu eta ados-
tea, etxeko lanen pilaketa...).

Mediku-azterketak berrikustea, emakumeen
osasunari egiten zaion arretak ikuspuntu ahalik
eta osoena izan dezan. Azterketa horiek txosten
kliniko-laboralak kontuan hartu behar dituzte,
bai-eta ikertu ere estresarekin edo ohituren
aldaketekin zerikusia duten aldeak (agindu ez
diren sendagaiak hartzea, psikosendagaien
erabilera...).

Norberaren zaintza eta autoestimua bultzatzea.
Emakumeen pertsona-garapena sustatzea.

Emakumezkoen sareak bultzatzea, eta behar
diren baliabideaz ornitzea langile emakumezko-
en gaixotasun nagusiak ikertu ahal izateko (zer-
gatiak, prebentzio-bideak).

Bukatzeko, beharrezkoa da emakumeen partaide-
tzaren garrantzia azpimarratzea, bai Sindikatu
Ordezkarri moduan, bai Prebentzio Ordezkarri
moduan edo Lan Osasuna Batzordekide moduan.
Gure partaidetza zuzenak ikusaraziko ditu guri
dagozkigun arazoak eta, halaber, arazo horiei
aurre egiteko behar ditugun aterabideen bilaketan
lagunduko gaitu.

Gizon-emakumeok gaurko egoera aldatu behar
dugu beste gizarte mota bat eraikitzeko, emaku-
meok lan mundura oztoporik gabe heltzeko aukera
izan dezagun, baldintza berdinetan, osasun fisiko
eta psikikoa arriskuan ipini gabe. □

*Testu honetan Santandereko UIMP-ko Mintegi batean, "Preven-
ción de riesgos de la mujeres en el trabajo" deiturikoan, azal-
duriko hainbat gogoeta bildu dugu, bereziki emakume hauek
aurkezturiko txostenak:*

*Lucia Mazarrasa: Carlos III Osasun Institutuko Osasun Esko-
la Nazionaleko Osasuna eta Nazioarteko Garapenerako
Atalburua.*

*Begoña López-Doriga: Emakumearen Institutuko Osasun
Arlakoa.*